

Ikasle berriek jarraitu beharreko urratsak



MATRIKULAZIOA

Bete eta bidali ondorengo informazioa, mezu elektronikoa bakarrean, Olarain Ikastetxe Nagusiaren tutoretza-sailari (tutoria@olarain.com).

01. Bete honakoak barne hartzen dituen agiria:
 - a. Datu pertsonalen inprimakia.
 - b. Fidantza itzultzeari buruzko araudiaren gaineko agiria.
 - c. Estatutuak, arau orokorrak eta arau bereziak berariaz onartzeko agiria sinatuta (deskargatu hemen araudia).
 - d. Datu pertsonalak babesteari buruzko agiria sinatuta.
 - e. Hileko ordainagiriak helbideratzeko banketxearen datuei dagokien agiria.
02. Duela gutxiko argazkia, atzealde zuriarekin.
03. Kutxabank-en hurrengo kontu korrontean 900 €-ko fidantza sartu izanaren egiaztatzea: **IBAN: ES50 2095 5206 04 1061940028 BIC: BASKES2B**. Beharrezkoa da ikasle izango denaren izen-abizenak adieraztea.
04. NANaren edo pasaportearen fotokopia.
05. Gizarte Segurantzako edo mediku-aseguru pribatuko txartelaren fotokopia.

06. Egoera mediko berezi nahiz elikadura-intolerantziaren bat pairatuz gero, erantsi dagokion mediku-ziurtagiria.

Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazio

(USE) nota: gainditu izanaren egiaztatzea posta elektronikoa bidez helarazi beharko zaio Olarain Ikastetxe Nagusiaren tutoretza-sailari (tutoria@olarain.com).

AURREZ AURREKO ELKARRIZKETA IKASLE IZANGO DENAREKIN

Dokumentazioa bidali ondoren, zuzendaria edo, hura egon ezean, egoiliarren zuzendaria zein tutorea zuekin harremanetan jarriko da nahitaezko elkarrizketaren ordua eta data zehazteko. Elkarrizketa ezinbesteko baldintza da Olarain Ikastetxe Nagusian onartua izateko. Hura amaitutakoan, ikasle gisa onartu duten jakinaraziko da.

BEHIN BETIKO ONARPENA

Aurrez aurreko elkarrizketa egin eta Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazio (USE) nota bidali ostean, Olaraingo tutoretza-sailak baieztatuko du plaza-erreserba posta elektronikoa bidez.

Onartzeko eskaera



Ikasturterako onartze-eskaera *

Ikasketak eta fakultatea edo eskola *

Ikasturtea *

Abizenak *

Izena *

NAN / Pasaporte zk. *

Jaioteguna *

Jaioterria *

Probintzia *

Egungo bizilekuaren helbidea *

Posta-kodea *

Herria *

Probintzia *

Mugikor pertsonala *

Familiaren telefonoa

Amaren mugikorra

Aitaren mugikorra

Ikaslearen helbide elektronikoa *

Amaren helbide elektronikoa *

Aitaren helbide elektronikoa *

Familia-unitateko kideen izen-abizenak, NAN zk. eta lanbideak *

Anai-arreben jaiotze-urtea.

Ostatu-erregimena *:

Aste osoa

Igandetik ostiralerako egonaldia

Mantenu osoa

Mantenu erdia

Ostatua eta gosaria

Arropa-garbiketarekin

Arropa-garbiketarik gabe

Ikasturtea hasi eta gero, Ikastetxeko Zuzendaritzak kontratatutako mantenu-pentsioa aldatzeko aukera onartuko/baztertuko du ikasle interesdunaren eskaeran azaltzen diren argudioen sendotasunaren arabera.

Hautazko garraio-zerbitzua BCCko ikasleentzat. Plazen arabera baieztatuko da zerbitzua.

Bai, interesatuta nago

Ez, ez nago interesaturik

Iradokizunak

Aitortutako datuetan zehaztugabetasun, omisio nahiz faltsutasunen bat egotea nahikoa da emandako plaza ukatzeko.

Amaren/aitaren/tutorearen izen-abizenak eta NAN zk

Ikaslearen izen-abizenak

Sinadura

Sinadura

*Nahitaez bete beharreko eremuak

Plaza- erreserbari uko egiteagatik fidantza itzultzeko arauak

 OLARAIN

Ikasleei ikasturterako aurrematrikula bermatzen dien 900 €-ko fidantza osorik edo partzialki itzuliko da jarraian aipatzen diren egoeretan:

01. Osorik itzuliko da:

- a)** Baldin eta ikasleak aurrez aurreko elkarrizketaren data baino lehen uko egiten badio balizko onarpenari.
- b)** Aurrez aurreko elkarrizketa egin ostean, Olaraingo Zuzendaritzak Ikastetxean onartzen ez badu.

02. Zenbatekoaren zati bat itzuliko da:

- c)** Ikastetxean aurrez aurreko elkarrizketa egin ondoren balizko onarpenari halabeharrez uko egin behar badio, baldin eta irailaren 1aren 0:00ak baino lehen ematen badio egoeraren berri Ikastetxeari.
Kasu horretan, 700 € itzuliko lirateke.

- d)** Ikastetxean aurrez aurreko elkarrizketa egin ondoren balizko onarpenari halabeharrez uko egin behar badio, baldin eta irailaren 1aren 0:00ak eta gero ematen badio egoeraren berri ikastetxeari.
Kasu horretan, 500 € itzuliko lirateke.

Fidantza irailaren 1aren ostean ordaintzen bada, eta balizko onarpenari uko egin eta fidantza itzultzea eskatu nahi izanez gero, eskaera Olarainen sartu baino hilabete lehenago egin beharko da gutxienez.

Kasuan kasuko itzultzeak matrikulatutako ikaslearen aitak, amak edo tutoreak hautatutako kontuan egingo dira, Olarain Ikastetxe Nagusiari plazaren ukapena jakinarazi eta hilabeteko epean gehienez.

Olarain Ikastetxe Nagusiaren alde aurrematrikula gisa sartutako fidantza itzultzeari buruzko arau hauetan jasotako puntu guztiak onartzen ditut.

Amaren/aitaren/tutorearen izen-abizenak eta NAN zk

Ikaslearen izen-abizenak

Sinadura

Sinadura

Araudia onartzea



20 - 20 ikasturterako Olarain Ikastetxe Nagusiaren estatutu, arau orokor eta arau berezietan jasotako agindu guztiak ezagutzen eta onartzen ditut.

Amaren/aitaren/tutorearen izen-abizenak eta NAN zk.

Ikaslearen izen-abizenak

Sinadura

Sinadura

Bankuko datuak



SEPA

01. Kutxa edo bankua

02. Kontuaren titularra

03. Kontuaren titularraren NAN zk.

04. IBAN

05. BIC

Baimena ematen diot Olarain Ikastetxe Nagusiari hileroko zordunketak helbideratzeko.

Amaren/aitaren/tutorearen izen-abizenak eta NAN zk.

Sinadura

Datuen babesa



Datu pertsonalak babesteari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz, **OLARAIN IKASTETXE NAGUSIA, S.L.k.**, IFZ B20581138 duenak (aurrerantzean, "**OLARAIN**"), datuen tratamenduaren arduraduna den aldetik, honakoa jakinarazten dizu:

01. Helburuak. Tratamenduaren arduradunarekin duzun harremanean zehar ematen dituzun datu pertsonalak eta dokumentuak gure tratamendu-sistemetan sartuko ditugu Ikastetxe Nagusiaren administrazio eta antolaketa lanak kudeatzeko, gure zerbitzuak eta jarduerak **sustatzeko eta hedatzeko**, gure jarduerari dagozkion **bidezko zereginak** egiteko eta **legezko eginbeharrak** betetzeko, bai eta ikastetxearen Estatutuen eta Barne Araudiaren ondorio diren helburuak eta une bakoitzean indarrean dauden funtzionamendu ordutegiak eta irizpideak betetzeko ere.

02. OLARAINek **bideozaintzako kamerak** ditu instalatuta hainbat aretotan, bai eta eraikinen kanpoko aldean ere. Zure irudia, beraz, ikasleei, langileei eta hirugarrenei eta Ikastetxeko instalazioei eta jarduerari behar bezalako arreta eta segurtasuna ematea helburu duen "Bideozaintza" izeneko gure datu-tratamenduan sar dezakegu.

03. OLARAINek txartel elektronikokoak erabiltzen ditu **sarbideak kontrolatzeko**. Zure txartel elektronikoen erabilpena, beraz, Ikastetxe Nagusiko instalazioetarako sarbideak behar bezala kontrolatzea eta horren ondorio diren gorabeherak kudeatzea helburu duen "Aretoetako sarbideak" izeneko datu-tratamenduan sar dezakegu.

04. Sekretu-eginbeharra. Datu pertsonalen tratamendua **sekreto profesionala gordetzeko eginbeharrak** babesten du eta behar bezalako

konfidentziasunez egingo da, datu pertsonalak babestearen arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraituz.

05. Adostasuna. Sinatzaileak eta, hala badagokio, bere familiartekoen edo arduradunek, **baimen zehatza** ematen diote tratamenduaren arduradunari bere datu pertsonalak bildu eta tratatzeko, **osasunari buruzko datuak** barne direla. Familiartekoen edo hirugarrenen datuak ematen badituzu, ziurtatzen duzu haien baimen zehatza duzula haien datuak OLARAINi emateko.

06. Modalitatea eta iraupena. Datu pertsonalen tratamendua **paperean nahiz baliabide informatikoen** bidez egin ahal izango da. OLARAINek denboramugarik gabe gorde ahal izango ditu datuak lege dagozkion betebeharrak edo interes zilegiak betetzeko, zuk aurkakoa eskatu ezean.

07. Datuak komunikatzea. Datu pertsonalak deskribatutako helburuetarako bakarrik tratatuko dira, eta ez dira erabiliko eta ez zaizkie hirugarrenei lagako beste helburu bakar baterako, zuk idatziz zehatz-mehatz eskatu ezean. Hala ere, OLARAINek ikasleen **gurasoei edo legezko ordezkari**ei, edo ikaslea Ikastetxe Nagusiko egoliar bere kontura duen enpresari edo erakundeari, komunikatu ahal izango dizkie portaerari, gorabeherari, zigorrei, sarrera-irteerari eta jardueretan parte hartzeari buruzko datuak (irudi eta soinua barne direla), bai eta Ikastetxeko Estatutuetan, Barne Araudian eta ikasleari dagozkion funtzionamendu irizpide eta ordutegietan adierazitako helburuak behar bezala betetzeko behar diren gainerakoak ere, eta zehazki ikasleen gelen egoerari buruzkoak eta sarbide-kontrolakoak eta bideozaintzakoak. Era berean, OLARAINek datuak komunikatu

ahal izango dizkie Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, kirol-federazioei eta Ikastetxearen aseguru-etxeari, bai eta aurreikusitako eta lege baimendutako edo derrigortutako gainerako kasuetan ere.

08. Harremana ikaslearekin. Sinatzaileak eta, hala badagokio, haren familiartekoen edo arduradunek, baimen zehatza ematen diote tratamenduaren arduradunari eskaintzen dituen zerbitzuei eta jarduerari buruzko **informazioa eta agiriak baliabide elektronikoen** bidez helaraz diezazkien, posta elektronikoa, mezularitza elektronikoa eta kideko erremintak barne direla.

09. Honakoak dira Pribatutasun Politika honetan deskribatutako datu-tratamenduetarako oinarri juridikoak:

- datuak tratatzeko **zure adostasuna**,
- zuk eskatutako **zerbitzuak** emateko zure datuak tratatzeko premia,
- tratamenduaren arduradunak **legezko betebeharrak** betetzea, eta/edo
- tratamenduaren arduradunaren **interes zilegia**, esate baterako, gure zerbitzuak eta jarduerak sustatzeko eta hedatzeko.

10. Agiri hau OLARAINek bertako ikasleei dagokienez jarraituko duen Datuak Babesteko Politika da, eta ez du, beraz, horren berri eman beharrik izango ondorengo formularioetan edo ematen dituen zerbitzuetan, politika hori edo legeria aldatu ezean. Eskatutako datuak emateak, zuk gure zerbitzuak eskatzeak eta Politika hau onartzeak esan nahi dute **baimen zehatza** ematen diozula tratamenduaren arduradunari datuak biltzeko eta datuak deskribatu bezala tratatzeko, zure osasunari buruzko datuak

barne direla, beharrezkoa denean. Zure datuak tratatzeko baimenik ematen ez baduzu edo emandako baimena erretiratzen baduzu, OLARAINek ezingo ditu eskatutako zerbitzuak eman.

11. Eskubideak. Datu pertsonaletan sartzeko, datu pertsonalak zuzentzeko, datu pertsonalen tratamendua mugatzeko, datuak kentzeko, datuen tratamenduaren aurka agertzeko eta datuak

transferitzeko eskubideak gauzatu ahal izateko, zure **adostasuna kentzeko** edo gaiari buruzko beste edozein eskaera egiteko idatziz jo beharko duzu OLARAIN Ikastetxe Nagusira, Ondarreta Pasealekua 24, 20018 Donostia-San Sebastian (Gipuzkoa) helbidean edo **tutoria@olarain.com** helbide elektronikoa bidez, zure NANaren kopia edo kideko identifikazio-agiria

eransita. Eskaerei emandako erantzunarekin ados ez bazaude edo erreklamazio bat jarri nahi baduzu, kontrol-agintaritzara jo dezakezu, kasu honetan Datuak Babesteko Agentziara: **www.aepd.es**

Olarain Ikastetxe Nagusia, S.L.k, tratamenduaren arduradun gisa, zure **adostasun zehatza eskatzen du** datuen honako tratamenduetarako eta komunikazioetarako:

01. Izen-abizenak, irudi pertsonala, gela-zenbakia, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, herria, ikasleak egiten dituen ikasketak edo jarduerak eta ikastetxean egiten dituen zereginak eta jarduerak ikasturtze bakoitzean, bai baliabide informatikoen bidez bai paperean, bai eta ikastetxeko iragarki-tauletan erakutsiz, gainerako ikasleei, erabiltzaileei, bisitariei eta ikastetxeko langileei komunikatu ahal izateko.

BAIMENA EMATEN DUT

EZ DUT BAIMENIK EMATEN

02. Izen-abizenak, irudi pertsonala, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, ikasleak egiten dituen jarduerak edo ikasketak eta ikastetxean egiten dituen zereginak eta jarduerak OLARAINen argitalpenetan agertu ahal izateko.

BAIMENA EMATEN DUT

EZ DUT BAIMENIK EMATEN

03. Izen-abizenak, irudia, ahotsa, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, telefono-zenbakia, ikasleak egiten dituen jarduerak edo ikasketak eta ikastetxean egiten dituen zereginak eta jarduerak OLARAINen webguneetan, blogetan, gizarte sareetan eta kanaletan eta Intraneten erabiltzeko.

BAIMENA EMATEN DUT

EZ DUT BAIMENIK EMATEN

Donostian, (e)ko ren (e)an.

Aitarenekin/amarekin/tutorearekin izen-abizenak

Ikaslearekin izen-abizenak

Sinadura

Sinadura

NAN

NAN